



ISF-MGI 01 koadernoak:

Testuinguruaren analisisia eta uraren arazoa

Ura eta saneamendua eskuragarri izatea giza eskubidetzat jotzen du Nazio Batuen Erakundeak. Eskubide hori beste eskubide batzuk gauzatzeko ezinbestekoa da, adibidez osasunerako, elikadurarako, etxebizitzarako eta hezkuntzarako eskubideak. Hala eta guztiz ere, gaur egun, munduko leku askotan, eskubide hau oraindik ez da betetzen.

Bizkaiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek, esaterako, Ingeniería sin Fronteras – Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI), giza eskubide hori ezagutzeko, aldezteko, sustatzeko eta benetan betetzeko proiektuak egiten dituzte, tokian tokiko lekuetan nahiz mundu zabalean.

Gizarte eta antolaketa testuingurua

El Salvadorreko Errepublikak, hain zuzen, Erdialdeko Amerikako herrialde bat da, erliebe menditsua eta Ozeano Barean 320 km-ko kostaldea dituena. **Giza Garapenari buruzko 2015eko Txosteneko**¹ datuen arabera, **mundu osoan aztertutako 188 herrialdeetatik 166. postuan dago**, eta gainera, errenta banaketari dagokionez, alde handiena duten munduko herrialdeetako bat da: herritarren % 20 aberatsenek % 20 pobreenek baino 18 aldiz handiagoa den errenta jasotzen dute, batez bestean. Herritarren % 30 pobrezia egoeran bizi dira, eta landa eremuetan, are handiagoa da kopuru hori. Gainera, aukeragabeziaren eraginez, indarkeria maila handieneko herrialdeetako bat da, eta horrek eragina dauka pertsonen bizi-kalitatean eta herrialdeko gobernagarritasun demokratikoaren egonkortzean.

Herrialdearen erdiguneko eremuan, Balsamo mendikatea dago; eta, bertan, San Jose Guadalupe landa komunitatea, 657 metroko garaieran. 45 baserritar familiak dago osatuta; orotara, 190 pertsona dira. Horietako % 53 emakumeak dira, eta herritarren % 40, 18 urtez beherakoak. Politikari dagokionez, komunitate hau Comasagua udalerriri dagokio, eta bertan daude bilduta beste 41 komunitate ere.

San Jose Guadalupe komunitatea sarbide zaileko landa eremuan dago kokatuta, eta Estatuak arreta eskasa eskaintzen dio; hala, inbertsio publikoko politika eta planetatik kanpo geratzen da beti, eta horrek areagotu egiten ditu hango pobrezia eta bazterketa mailak. Beste komunitate batzuekiko eta Comasagua udalerriko hiriburuarekiko komunikazio bideak oso prekarioak dira: errepideak lurrezkoak dira eta garraibide publikoren bat hartzeko komunitatetik atera, eta bi kilometro egin behar dituzte oinez, tokiko autobusaren ibilbidera iristeko.

Etxebizitzaren % 55etan energia elektrikoa dute; izan hornidura sarekoa, izan eguzki plaken bidezkoa. Etxebizitzak material landugabez daude eraikituta: hormak kanabera edo lastozkoak dira, lokatzarekin nahastuta; etxebizitzetako lurzorua, berriz, zapaldutako lurra baino ez da.



San Jose Guadalupe El Salvadorreko erdigune menditsuan dago kokatuta

¹ Nazio Batuen Garapenerako Programa. Giza Garapenari buruzko Txostenak. <http://hdr.undp.org/es/data>



Emakume bat, bere etxebizitzan bazkaria prestatzen

Emakumeek gizonek baino lehenago utzi behar izaten dituzte ikasketak, etxeko eta landako lanetan laguntzeko. Baliabide ekonomiko eta antolamenduzkoak eskuratzeko, bai eta euren premiekin eta interesekin lotuta dauden erabakiak hartzeko parte-hartzean ere, diskriminazio baldintzak pairatzen dituzte. Oro har, aitak jokutzen du familiaburu rola, eta hark hartzen ditu familiari eragiten dioten erabaki garrantzitsuenak; huraxe da komunitateko gaietan bozkatzen duen bakarra. Horri guztiari herrialde osoan orokorrean dagoen **genero indarkeria maila handia** gehitu behar zaio. 2013. urtean, 12 emakume hil zituzten 100.000 biztanleko.

Azken urteotan, emakumeen elkarteek egindako borrokari eta eragin politikoari esker, El Salvadorreko Gobernuak hainbat lege sustatu ditu genero indarkeriari aurre egiteko, diskriminazioa errotik desagerrarazteko eta arlo guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko. Alabaina, pentsaera aldatzea eta gizonei eta emakumei esleitutako estereotipo tradizionalak suntsitzea oso prozesu geldoak dira.

San Jose Guadalupeko baseritar komunitateak badu **antolaketa egitura** moduko bat, baina hutsune nabarmenak ditu. Hauek dira bertako erakunde nagusiak:

- **ADESCO** (Asociación de Desarrollo Comunal - Garapen Komunaleko Elkarte). Lege egitura duen elkarte da, komunitateko pertsona guztiek osatzen dutena. Elkartearen egitekoa tokiko gizarte garapenaren alde lan egitea eta sortzen diren premiei irtenbideak bilatzea da, alkatetzarekin, ministerioekin eta beste erakunde batzuekin koordinazioan. ADESCOko kideek zuzendaritza talde bat aukeratzeko dute, eta hark arduratu behar luke udalerriko alkatetzarekin eta inguruko beste erakunde batzuekin ekintzak koordinatzeaz. Praktikan, baina, kide horiek komunitateko baliabide naturalak eta ekoizpenekoak egoki kudeatzeko dituzten gaitasunak oso mugatuak dira, eta egiten duten lana ez da oso eragingarria izaten. Ez dute lortzen Comasagua alkatetzak komunitateko herritarren egiazko eskariei arreta eskaintzea eta euren proposamenak udalerriko aurrekontuetan txertatzea. ADESCOren zuzendaritzan emakumeek toki txikia dute; horregatik, herritarren sektore horren interesak eta kezak ez dira behar bezala isplaturik ageri elkarte komunal horren erabakietan.
- **Emakumeen batzordeak.** Interes berberak dituzten emakumeek osatutako elkarteak dira. Komunitate barnean ekintzailetzak aurrera ateratzeko asmoz biltzen dira. Batzorde horiek,aldi berean, Comasagua udalerriko Emakume Elkartearen baitan daude bilduta, elkarrekin indar handiagoa egiteko udal gobernuaren aurrean aurkeztu dituzten eskaeretan.



ADESCOren bilera

Komunitate horretako **osun zerbitzua** osun sustatzaile batek astean behin egiten dien bisita bakarrean dago oinarrituta. Pertsona hori udalerriko hiriburuan dagoen Familia Osasuneko Unitatetik doa, eta komunitatean dagoen osun arretarako zentro txiki batean egoten da. Hura ez doanean, San Jose Guadalupeko pertsonak ordubetetik gorako ibilia egin behar dute osun langile gaituak dituen osun sareko zentro batera iristeko.

Hezkuntzarako sarbideari dagokionez, berriz, komunitatean bada eskola bat, baina bertan Lehen Hezkuntza baino ez dute eskaintzen. Herritarrek batez bestean 6 urte inguruko eskolaratzea izaten dute.

Hezkuntza da **gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna** argi eta garbi ispliatzen duen arloetako bat.

Testuinguru ekonomikoa

San Jose Guadalupeko familien jarduera ekonomikoa nagusia artoaren, artatxikiaren eta babarrunaren laborantza da. Lursail txikiak lantzen dituzte, eta gutxi ekoizten dute; batik bat, familia elikatzeko izaten da, eta sobera geratzen zaiena tokiko merkatuan saltzen dute. Hango ekoizleen artean dagoen lehia handia dela tarteko, oso prezio baxuan saltzera daude derrigortuta. Hauek dira eremu horretako nekazaritza jarduerak dituen hutsune nabarmenetako batzuk: herritarrek dituzten ezagutza tekniko eskasak, nekazaritza jardueretarako makineriarik eza eta bertako hazien tokian merkaturatutako haziak erabiltzea (ongarri eta simaur kimikoak erabiltzea edo horiekiko mendekotasuna dakartenak).

Soro landuen % 90 modu tradizionalen ureztatzen dira, hots, lursailetan nahita uholdeak sortuz; eta horrek ura erruz xahutzea dakar.

Ingurumen testuingurua eta uraren arazoa

El Salvadorreko klima tropikala da: urtean, batez bestean, 20.7 °C-ko temperatura izaten da eta prezipitazio ugari (1.784 mm, Bilbon baino gehiago). Alabaina, euri ur gehiena galdu egiten da, bai ebapotranspirazio² bidez, bai isurketa³ bidez. Klima aldaketaren ondoriozko hondamendi natural ugari gertatzen diren herrialdea da: urakanak, denbora luzeko lehorteak, soroak eta herrixkak urez betetzen dituzten ekaitz tropikalak, etab.


Landa eremuek geroz eta handiagoa den basogabetzea jasatearen ondorioz lurzoruak degradatzen ari direnez, uste da **euri uraren % 10 baino ez dela sartzen lurpeko akuiferoetara**.

Balsamo mendikateak (bertan dago San Jose Guadalupe komunitatea) mendiek berezkoak dituzten baldintza topografikoak ditu: gailurrak eta mendi bizkarrak, bai eta malda handiak ere, ibaiek eta errekek moztuak. Mugimendu sismikoak izateko arrisku handiko eremua da, eta horiek lur irristatzeak eragiten dituzte. Fenomeno natural klimatiko eta sismikoek, ingurumenarekin erasokorrek diren giza jardunekin batera (esaterako, basogabetzea), **baliabide naturalak eta ekoizpenezkoak pixkanaka narriatzea** dakarte, eta horrek konponbide gaitzeko ondorioak uzten ditu. Horri mendikatean gertatzen ari den hirigintza hedapen bizkorra gehitu behar zaio. Hedapen horrek eragina dauka gaitzagarri hidrikoko eremuetan, eta horrenbestez, iturburu eta putzuetako emaria murrizten ari da.

Bada beste zaurgarritasun faktore bat: komunitatean ez daukate euren lurzorua, soroak, abereak, basoak, ura eta gainerako baliabideak modu planifikatu eta iraunkorrean baliatzeko eta horiei etekina ateratzeko behar adina ezagutza eta antolatze gaitasun.

Edateko urari dagokionez, gaur egun **soilik herritarren % 38k dute etxebizitzaraino iristen zaien ur zerbitzua**. Zerbitzu hori daukatenez, gainera, ur **mozketak** izaten dituzte, astebetekoak ere izan daitezkeenak, eta udako hilabeteetan, baita luzeagoak ere. Saneamendu datuak are kezagarriagoak dira, bestalde. **Komunitateko familia bakar batek ere ez du komunik edo etxebizitzan oinarritzea den bestelako saneamendu sistemarik**. Landa komunitateetako herritarrak ohituta daude aire zabalean sabelustera, eta ez dira ohartzen zenbat arrisku dakartzen horrek. Hala egitea giza duintasunaren aurka doa, baina horretaz gainera, gaixotasun infekziosoen sorburu ere bada, eta segurtasunik ezeko egoerak eragiten ditu, batez ere emakume eta neskenentzat.

Egoera horri aurre egiteko, San Jose Guadalupe komunitateak, Comasagua udalerriaren laguntza ekonomikoarekin, ur hoditeria bat instalatu zuen 1980an, grabitate bidezkoa, mendiaren goiko aldean komunitatetik 6 kilometrorra dagoen iturburu batetik datorrena. Ikastetxea eta komunitateko etxebizitza sektore bat hornitzea zen asmoa. Tamalez, azpiegitura horrek gabezia tekniko ugari ditu, diseinuari eta material desegokien erabilerrari dagokienez. Sarri, gainpresioaren eraginez hoditeria hautsi egiten da,



Paisaiak aldapa handiak eta landaretza urria ditu

² Gainazal baten ur galera, zuzeneko lurrunketetatik eta landarearen transpirazioetatik.

³ Lurzoruaren gainazaletik doan euri uraren parte bat, lurzoruaren iragazi gabe.

eta gainera, banaketa desorekatua egiten du; izan ere, goi eremuko etxebizitzetara behe eremukoetara baino ur gehiago iristen da, eta hori gatazka iturri izaten da. Horratx Comasaguako udal gobernua komunitatean uraren eta saneamendu zerbitzuaren hornidurarekin lotutako arazoak ebazteko jardunetarako duen gaitasunik ezaren adibide bat, maila teknikoan, bai eta kudeaketa eta plangintza ekonomikoari dagokionez ere.

Baina bada komunitate honek urarekin lotuta daukan beste arazo orokor bat ere: **uraren kutsadura**, hain zuzen. Aire zaba-



Ibaian nork bere burua eta arropa garbitzea ohiko jarduera da



Emakume bat, putzu batetik ura ateratzen

lean kutsadura dakarte, bai eta lurpeko urena ere, lixibiatuak iragazteagatik. Horrek guztiak osasun arrisku handia dakar, eta pertsoneri ez ezik, inguruneke faunari eta florari ere eragiten die. El Salvadorreko Ingurumen eta Baliabide Naturalen Ministerioak berriki egindako azterlan batzuen arabera, herrialdeko ibaien % 38k kalitate kaskarreko edo oso txarreko ura dute, eta % 50ek erdipurdiko kalitateko ura. Ur osasungaitza kontsumitzea, zikinkeria, kiratsak eta intsektuak ditugu, zehazki, herritarrek gaixotasun gehiago izateko arriskua eragiten duten faktoreak. Beherakoa eta gastroenteritisa dira gaixotasunik ohikoena; batez ere, 5 urtez azpiko haurrei eragiten die, eta landa eremu horretan, mediku arreta egokirik gabe, heriotza ere ekar dezakete.

Edateko ura ezin eskuratzeak eta saneamendurik ez izateak osasunerako eskubidea urratzen dute, baina baita beste eskubide batzuk ere: hezkuntzarako edo enplegurako eskubideak, esaterako. Urraketa horiek, gainera, **eragin handiagoa dute emakumeengan gizonengan baino**. Etxebizitzari eta familiaren zaintzari lotutako genero rolen eraginez, gizarteak berak esleitutakoak, emakumeek arduratu behar dute ura lortzeaz, familiaren kontsumorako, sukaldetan erabiltzeko, nork bere burua garbitzeko, etxebizitza txukuntzeko, etab. Horren eraginez, egunero-egunero oinez joan behar izaten dute hurbilen duten iturrira, euren pegarrak betetzera. Zeregin horrek, galera fisikoa eragiteaz gainera, euren denbora librean ere badu eragina; izan ere, beste jarduera batzuk egiteko denbora kentzen die, izan ordainduzko jarduerak, prestakuntzazkoak edo aisialdikoak. Gainera, euren bizitza arriskuan jartzen dute, ibilbidean zehar erasoak jasan baititzakete.

Familiako ura kudeatzeko arduradunak izan arren, botere postuetan eta komunitateko erabakiguneetan apenas dutenez tokirik, emakumeek arazoak duten ikuspegia ez da kontuan hartzen. Hala, **komunitateko uraren kudeaketak ez die erantzuten emakumeen premiei eta esperientziei**.

Gauzak horrela, Ingeniería Sin Fronteras - Mugarik Gabeko Ingeniaritza GGKE lanean ari da El Salvadorren, herritarren baldintzak hobetzeko, edateko ura eta saneamendu egokia izan dezaten, eta hartara, giza eskubide hori eta beste oinarriko giza eskubide batzuk bermatzeko. GGKE honek hango herritarren zerbitzura jarri ditu ur hornidurarako eta saneamendurako azpiegiturei buruz dituen ezagutza teknikoak, eta hainbat estrategia eskaintzen dizkie ura modu antolatua eta iraunkorrean kudeatzeko herritarrek beharrezkoak dituzten gaitasunak indartzeko.

Egilea: Ingeniería Sin Fronteras – Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) eta Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo | **Argazkiak:** ISF-MGI
Kofinantziazioa: Bizkaiko Foru Aldundia | **Diseinua eta maketazioa:** Seteseoitto | **Inprimaketa:** Imprenta Garcinuño | **Lege Gordailua:** BI-371-2016

DHAS Bizkaiko taldearen, ISF-MGI, eta Zabalketaren web-orrietan ere eskuragarri dago, gaztelaniaz nahiz euskaraz

www.forobizkaia.dhas.org / www.euskadi.isf.es / www.zabalketa.org